

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Isidoro Mujika Treku*

*Urnieta,  
Gipuzkoa  
(1922-2021)*

Aurkibidea



## Biografia



Urnietako Oztaran auzoko Oztataegi baserrian jaio zen 1922an. 6 urterekin eskolan hasi zen eta 3 komunio egin zituen. Dotrina euskaraz ematen zuten, euskaltzalea zen apaiz bati esker. 11 senide ziren baina bat txikitan hil zen. Guztira 9 anaia eta 2 arreba ziren. Oztataegin (Otsategin) maizter ziren; errenta ordaintzeko, urteroko eguberri egunerako txekor bat eta oilo batzuk propio gordeta izaten zituzten. Lan askotan ibilia da: morroi zenbait etxetan eta Ziordiako artzain bati laguntzen (harekin ikasi omen zuen gaztelera), gerraren ondorioz txikitutako baserri bat berreraikitzen peoi, bonba fabrika tornuan zebiltzanei piezak eskura ematen, okindegi batean Donostian, esne-banatzen Donostian (hortik hasi zen Gurelesaren sorreran egon ziren gutxitako bat izango da bera), eta azkenik, beraiek ireki zuten denda batean, Urnietan bertan.

## Zintak

### URN-037

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-06
- **Iraupena:** 118 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Doroteo Mujikak euskarazko dotrinaren alde egindakoak

- **Erref:** URN-037/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

**Laburpena:**

<p>Sei urterekin eskolan hasi, eta zazpirekin komunio txikia egin zuen. 10 eta 11 urterekin, "komunio jenerala" egiten zuten. Dotrina euskaraz ikasi zuten. Doroteo Mujika zen orduko gotzaina, eta hark agindu zuen euskaraz jartzeko dotrina. 12 urtera arte ibili zen eskolan.</p>

**2. Teresa Amuategi emagin estimatua**

- **Erref:** URN-037/004
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:03:23. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

**Laburpena:**

Senide gehienak etxean jaio ziren. Emagina zegoen garai hartan, eta oso estimatua zen. Gerora, fabrika sartu zen lanean, erizain. Orduan, jendeak pena handia hartu zuen. Emakume harrigarria zen. Teresa Amuategi zuen izena.

**3. Errenta ordaintzeko modua lehen**

- **Erref:** URN-037/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena:**

<p>Hautzaroko oroitzapenak: gurasoak maizter ziren etxean, hainbat abere zeuzkaten; eta, errenta ordaintzeko egunerako, oilaskoak eta txekorra prestatzen zituzten gurasoek.</p>

**Transkripzioa**

- Ni jaiyo nintzanien, ba, gure etxian zian maixterrak zien gure gurasuak. Maixterrak zian, eta lau behi izaten giñun, lau behi, bost, lau behi. Geo beren txekorrak hazi itten zian, umiak hazi itten zian, ta beste ba igual hogeita hamar-berrogei bat oillo; eta eguarri egunian izaten zan errenta pagatzeko eguna. Ta orduako preparatzen zittuen ba berrogeita hamar bat oillesko-oillanda, ta beste txekor bat eo izaten zan; ba haik izaten zian ba errenta pagatzeko, ya preparatzen zittuen hoik gure gurasuak. Gure gurasuak hoi izaten zuen, [...] preparatzen zittuen, ta geo haik saltzen zittuen, oilleskuak eta hoik saltzea Santo Tomasetan jutun zian Donostia, ta Santo Tomasetan saltzen zittuen oilleskuak eta geo txekorra're garai hartako preparatzen zuen. Ta errenta pagatzeko izaten zuen beren alderdi hartan.

#### 4. Baserriko lanak eta jeneroa

- **Erref:** URN-037/007
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

##### Laburpena:

Artoa, babarruna eta garia lantzen zituzten etxean. Orduko neurriak aipatzen ditu. Pixkanaka, garia egiteari utzi zioten, baserriko lanak aldatu egin baitziren. Orduko lanen gorabeherak aipatzen ditu.

#### 5. Lurra lantzeko tresnak

- **Erref:** URN-037/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

##### Laburpena:

Lurra lantzeko zer tresna erabili izan dituzten azaltzen du: area, karramarroa... Nola funtzionatzen zuten.

#### 6. Lurra biratzeko, laia

- **Erref:** URN-037/011
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

##### Laburpena:

Lehen, laia sagastietan lan egiteko erabiltzen zuten. Urnietako baserri batean, laiarekin biratzen zuten lurra. Lurra nola biratzen zuten azaltzen du.

#### 7. "Rastra" sistema

- **Erref:** URN-037/012
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

##### Laburpena:

"Rastra" sistemak nola funtzionatzen duen azaltzen du.

#### 8. Besabea

- **Erref:** URN-037/013

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:39. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena:**

Besabeak zertarako balio zuen azaltzen du.

## 9. Lau hortzeko besabea

- **Erref:** URN-037/014
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:28:44. **Bukatu:** 00:30:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

**Laburpena:**

Lau hortzeko besabeaz hitz egiten du.

## 10. Hondarrezko baratzeak

- **Erref:** URN-037/016
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:30:57. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

**Laburpena:**

Astigarragako baratzeetako lurak oso harroak dira. Garai batean, ganaduen azpietarako hondarra Urumeatik ekartzen zuten; nola ekartzen zuten azaltzen du. 11 urte zituela, Olatxo Donostiako lurretan zegoen; eta hango soroak harrigarriak ziren, hondarrezkoak baitziren.

## 11. Simaur motak eta haien onurak

- **Erref:** URN-037/017
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

**Laburpena:**

Donostiako kale-simaurrak, garai batean, baserrietara ekartzen zituzten. Olatxoko erriberetan, arto asko egiten zuten; eta kale-simaurraz baliatzen ziren horretarako. Ganadu-simaurra baratzeetarako izan ohi zen.

## 12. Artzainarekin, erdara nahitaez ikasi behar

- **Erref:** URN-037/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:36:28. **Bukatu:** 00:38:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

#### **Laburpena:**

1935eko negua artzainarekin pasa zuen. Artzain hura Zigordiakoa zen, eta haren morroia Arabakoa. Biak erdaldunak ziren, eta Isidorok hitz bat ez zekien erdaraz; hala ere, berehala ikasi zuen. Ingurukoak harrituta geratu ziren erdara nola ikasi zuen ikusita.

### **13. Erdaraz ikasi izanagatik eragindako harridura**

- **Erref:** URN-037/020
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Euskara » Euskararen egoera

#### **Laburpena:**

<p>Nagusiak esnea Donostian saltzen zuen, eta trenez eramaten zuen hara, goizeko 7etan. Han, erdaraz hitz egin zuenean, harrituta geratu zen bertako emakumea. Garai hartan, Urnietan, ez zuten hitzik egiten erdaraz.</p>

#### **Transkripzioa**

- Ta beste kaso bat'e gertatu zitzadan. Zazpitako ribera eramaten zun, nagusiyak esnia Donostin saltzen zun. Hortxe, ez dakit ba, berrogei bat litro esne, holako postura bat edo. Ta gazta pare bat bakarrik itten zittun etxian, ta [...] geo bea saltzen zan, juten zan esnia saltzea, Bretxa o... saltzen zun. Ta goizian ni're marmita batekin, esaten dizut, harena zazpitako treneako bizkarrian hamar litroko marmita hartu ta hara jun bihar izaten nun. Ta gero bueltakuan, Zaldundegi o, famatuba da etxe hoi. Ordun, ba pentsuba ta ogiya, komestiblia ta pentsuba ta gasolina ta iketza ta... Danak saltzen zittuen etxe hortan. Eta ogiya bueltakuan ba nagusiyak paatuko zun, goizian hartzen nun [...] nagusiyak; eta bertako alaba soltera ta non hor ateratzen zait alegiya "Ba, nagusiyak pagatuko dizu bueltan" esan biharrian "ya le pagará... el patrón ya le pagará cuando, a la vuelta". Ta hola gelditu zitzadan begira... Nik huaxe atera zitzadan! Kasuen diez!

- Ordun Urnietan euskeraz hitz eingo zen dena.

- Dana! Guk ez giñakigun hitzik'e! Hitzik esateko, esaten dizut ba, nik hantxe.

### **14. Erdara ikastearen poza**

- **Erref:** URN-037/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

**Laburpena:**

Behin, artzainarekin Lazkaora joan zen Isidoro. Izan ere, erdara ikasten zuen harekin, eta gustura ibiltzen zen.

**15. Senideak gerran edo gaixo, eta bera etxera**

- **Erref:** URN-037/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

<p>Gerra hasi zenean, hiru anaia eraman zituzten gerrara deialdi bakarrean. Arrebak karbunkoa harrapatu zuen, eta ez zen gai behiak jezteko. Orduan, Isidoro Aierdin zegoen morroi, eta etxera itzuli behar izan zuen laguntzera.</p>

**16. Etxeak egiteko harria**

- **Erref:** URN-037/025
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Etxeginak

**Laburpena:**

Kontratistek etxegintzako materiala nondik lortzen zuten azaltzen du. Behin, harria kargatzen ari zirela, istripua gertatu zen.

**17. Lanean jai eta beste lan bat bilatu**

- **Erref:** URN-037/026
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:49:36. **Bukatu:** 00:51:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena:**

Etxe bat berritzeko lanetan peoi zebilela, lan-istripua egon zen, eta egun batzuk jai izan zituzten orduan. Egundorietako batean, Isidoro eta bere anaia bonba-fabrikara joan ziren lan eske; eta lortu, gainera. Gerra bukatu zenean, ordea, langile erdiak kalera bota zituzten; horietako bat, Isidoro.

**18. Morroi ez, tornulari izateko nahia**

- **Erref:** URN-037/027
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:51:39. **Bukatu:** 00:53:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

<p>Bonba-fabrikan lanean aritu ostean, Isidorok erabaki zuen ez zela gehiago morroi joango; tornulari izan nahi zuen. Aitak, ordea, nahiago zuen Isidoro okin izatea.</p>

**19. Okin izateko ikasteko leku bila**

- **Erref:** URN-037/028
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:53:22. **Bukatu:** 00:58:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Isidoro hara eta hona ibili zen okin izateko ikasteko leku bila. Azkenean, lortu zuen. Okinen patronalean aprendiz izateko hartu zuteneko eguna gogoan du.

**20. Lasarteko lurren historia**

- **Erref:** URN-037/029
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:58:53. **Bukatu:** 00:59:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

**Laburpena:**

Oria Urnietako lurretan zegoen garai batean. Lasarte, lehen, Urniet, Hernani eta Usurbilgo lurretan zegoen. Gerora, herri bihurtu zen.

**21. Mundua ikusteko gogoarekin, beste lan batzuen bila**

- **Erref:** URN-037/031
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:00:38. **Bukatu:** 01:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

San Isidro egunean hasi zen okinen patronalean aprendiz. Soldadutza bukatu ostean, ordea, okintzako lana uztea erabaki zuen. 67 urteko lankide bat hil egin zen lanean zebilela; eta horrek zer pentsatua eman zion. Mundua ikusteko gogo zeukan, eta probatzeko nahia. Horrela, koinatuarekin hasi zen lanean, mendietako hondarra ateratzen Buruntzan. Hondar horrekin fundizioetako moldeak egiten zituzten Beasainen. Hango lan-baldintzak okinarenak baino askoz hobeak ziren.



## 22. Esnea saltzea ogibide bihurtu zitzaionekoa

- **Erref:** URN-037/032
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 01:03:47. **Bukatu:** 01:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Mendietako hondarra ateratzen zebilela lanean, arrebak bigarren haurra izan zuen; orduan, Isidorok hartu zuen arrebaren lana, eta esnea banatzen hasi zen Donostian. 62 litro banatzen zituen bezeroen artean. Diru-kontuak egin zituen, eta eguneko 32 pezetako jornala jaso zezakeela kalkulatu zuen. Esnea autobusean eramaten zuen; eta bizikleta eta gurdiaekin banatzen zuen etxetik etxe.

## 23. Esnea saltzen batetik bestera, ikuskatzailea etorri zitzaion arte

- **Erref:** URN-037/033
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 01:08:06. **Bukatu:** 01:12:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Esnea saltzen zebilen garaian, lanez gainezka ibiltzen zen. Kotxerik ez zuenez, denera ezin iritsi ibiltzen zen. Egun batean, ikuskatzailea etorri zitzaion San Martin plazan, eta salatu egin zuen. Handik aurrera, esnezaleen gremioan sartu behar izan zuen, legea bete zezan.

## 24. Esnea pasteurizatzeko legearen ostean, Gurelesa sortu

- **Erref:** URN-037/034
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 01:12:38. **Bukatu:** 01:17:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Esnezaleen gremioan, hilean behin, bilera izaten zuten. Okendo kaleko etxabe batean elkartzen ziren. Hala, zenbait urteren ostean, 1954an, lege bat atera zen Espainian, esnezaleek saltzen zuten esneak pasteurizatuta egon behar zuela arautuz. Lege horren ondorioz, Gurelesa esne-zentrala sortzea erabaki zuten. Isidorok zentrolean parte hartzea erabaki zuen.

## 25. Gurelesaren lehenengo fabrika

- **Erref:** URN-037/036
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:17:42. **Bukatu:** 01:18:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

Esne-zentrala sortu zutenean, 12 kidek erabaki zuten proiektu horretan parte hartzea. 24.000 litro esneko ekoizpena zuen fabrika esleitu zieten.

## 26. Esne-zentrala eraikitzeke gorabeherak

- **Erref:** URN-037/037
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 01:18:53. **Bukatu:** 01:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

Esne-zentrala eraikitzeke gorabeherak kontatzen ditu: non eraiki, nork, nola, zenbatean...

## 27. Gurelesaren hasierako giro zaila

- **Erref:** URN-037/040
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 01:27:38. **Bukatu:** 01:31:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Jendea Gurelesaren aurka matxinatu zen hasieran. Orduan, Tolosatik Iruna bitarteko baserritarrei esne freskoa saltzeko baimena eman zieten. Baina, gerora, Madrildik lege zorrotza etorri zen, esne-zentralen alde egiten zuena. Orduan, oso gaizki ikusia egon zen Isidoro Urnietan: "baserritarra baserritarren aurka" esaten zioten.

## 28. Gurelesatik "Autoservicio Mujika"ra

- **Erref:** URN-037/041
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:31:57. **Bukatu:** 01:33:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

18 urte zeramatzala Gurelesan, Astigarragako eremuan lanean, Urnietan lan egiteko agindua jaso zuen. 12 urte eman zituen hor. Gerora, "Autoservicio Mujika" denda jarri zuten; eta 1991-1992an erretiratu egin zen.

**29. Bonba-fabrikako lanak**

- **Erref:** URN-037/043
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:46:59. **Bukatu:** 01:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

**Laburpena:**

Bonba-fabrikan lanean aritu zenean, zer lan-prozesu izaten zuten azaltzen du.

**30. Tornulari izateko nahia piztu zitzaionekoa**

- **Erref:** URN-037/044
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:50:16. **Bukatu:** 01:52:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

**Laburpena:**

Bonba-fabrikan lanean hasi zenean, bere zeregina izaten zen piezak tornulariari eramatea. Tornularietako bat gerrako preso zen; gizon horrek abilezia zeukan tornuan; eta, hari begira, Isidorori tornulari izateko nahia sortu zitzaion.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-08-24*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)